

EUSKARA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Imanol Kañamares Muguerza, Aide Txokarro Ezkurra Sonia Esarte Eseverri	Maila	DBH4	Ikasturtea	2020-2021
-----------	--	-------	------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

DBHko azken ikasturtea dugu, hori dela eta, aurreko ikasturteetako ezagutzak finkatu eta berriak bereganatzea dira ikasturte honen helburu nagusiak.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1.unitatea	2.unitatea	3.unitatea
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.			
3) Gaitasun digitala.	X	X	X
4) Ikasten ikastea	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzailatza.	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

1. unitatea: Baga, biga, higa...

- o **PROIEKTUA:** ikasleek aukeratutako euskal poesiaren antologia sortzea eta horren bitartez emanaldi bat antolatzea da helburua. Horretarako, irakurritako gustuko olerkiak bilduko dituzte egileen datuak sartuz. Horrez gain, haiek nahiz ikaskideek sortutako poesiak txertatuko dituzte bideratutako kontrol zerrendari jarraituz.
- o **Testu tipoa:** literatur testu narratibo eta lirikoak
- o **Edukiak:**
 - Informazio-diskurtsoa (idatzizko testuak. Esatezko idatzitako testuak)
 - Euskal poesiagintza (mugimenduak, gaiak, tonuak)
 - Ahozko euskal literatura. Literatura-generoak
 - Literatura-baliabideak (fonikoak, semantikoak, gramatikalak, memoriaren lagungarri direnak)
 - Gramatika: Deklinabidea. Mugagabea.
 - Baldintza erreala, hipotetikoa eta irreala.
 - Kategoria gramatikalak indartu.

2. unitatea: Ohartu gabe heldu gara...

- **PROIEKTUA:** Prozesuan zehar landutako idazki-ereduen artxibo bat sortzeko eta horiek egoera errealean dramatizazio laburren bitartez erakusteko eskatzen diegu ikasleei unitate honetan. Proposatutako zereginak ondoko gaitasunen garapena bideratuko dio ikasleari: alde batetik, idazki formalen konbentzio nagusien eta ezaugarri espezifikoen ezagutza, eta horrekin, haien oinarrizko ulermena; bestetik, komunikazio-asmo jakinei erantzuten dieten testu instituzionalen sorkuntza.
- **Testu mota eta tipoa:** azalpen eta argudiozkoak: inprimakiak, dokumentuak (kexa, eskaera, erreklamazioa, zoriontzeko gutuna, Curriculum Vitae...)
- **Edukiak:**
 - Inprimaki nahiz dokumentu formalen interpretazioa: edukia eta forma
 - Informazio-iturrien erabilera: IKT (informazio- eta komunikazio-bide)
 - Informazioaren kudeaketa: topatu, erregistratu, bere beharretarako antolatu
 - Idazki formalen planifikazioa, testualizazioa eta berrikusketa
 - Testu antolatzaileak (denborazkoak, aurkaritzakoak, kausa/ondoriozkoak), ideiak gehitzekoak, ordena adieraztekoak, birformulatzekoak, adibideak ematekoak, aposizioa
 - Laburtzapenak: siglak, ikurrak eta laburdurak
 - Euskaltzaindiaren araugintza
 - Lexiko-sorkuntzarako bideak (hitz-elkarketa, eratorpena, mailegutza)
 - Aditza eta komunztadura
 - Kategoría gramatikalak indartu.

3. unitatea: Aldizkari digitala - Hitzatzea

- **PROIEKTUA:** DBHn ikasitakoaren gaineko hausnarketa egiteko unitatea da. Ikasleek bere kazetaritza testuak, bakarka nahiz taldeka, egin beharko dituzte.
- **Testu tipoak:** guztiak
- **Edukiak:**
 - Institutuarekin nahiz ikasleen interesarekin lotutako edukiak bilduko dituen aldizkari digitala (baterako hezkuntza ardatz izanda)
 - Gramatika oinarrizko kontzeptuak: kategoría gramatikalak eta sintaxia.
 - Kategoría gramatikalak indartu.

Oharra:

Gramatika azalpenak testuen lanketen arabera bermolda daitezke ebaluazio bakoitzean.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Skolae berdín bidean programa integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude. Kurtso honetan bi jarduera landuko dira, 1. Eta 2. Ebaluazioen bukaeran. Honetarako, 1. ebaluazioan programatzen den ahozko literaturari loturik, Maitasunaren entsaladak eta Mito erromantikoak jarduerak landuko ditugu.

URRUTIKO HIZKUNTZA ESKOLA:

Nafarroako Urrutiko Hizkuntz Eskolak antolaturiko MAILA AURRERATUko azterketa (B2) ikastetxean bertan egiteko aukera izanen da. Horretarako, ikasturtean zehar aurreko urteetako probak eginen ditugu eta horiek ere notarako kontuan hartuko dira.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

Mintegiko programazio didaktikoan eta honako lotura honetan ikusgai: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
33	1. ikasunitatea	33	2. ikasunitatea	33	3. ikasunitatea

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Testugintza abiapuntutzat harturik, edozein testu mota sortzeko mekanismoak bereganatzea da helburua. Horretarako, EKI proiektuko 4. DBHko hiru liburuak, jarduera fitxak eta lan koadernoak baliatuko ditugu. Gramatika atala lantzeko, berriz, testu liburuaz gain, ariketa osagarriak burutuko dira bestelako iturrietatik.

Proposatutako lanak talde txikian edo bakarka egingen dira. Ikasturtean zehar hiru proiektu garatuko dituzte teoria eta praktika uztartuz. Ikaskuntza kooperatiboa eta baterako heziketa izango ditugu kurtso osoko ardatz.

Ikasgaia IK/KI metodologiaren bidez landuko da. Metodologia hau jarraituz, ikasleak launaka taldekatuko dira, bakoitzak bere rola izanik.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Mintegiko programazio didaktikoan eta honako lotura honetan ikusgai:

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Klasean nahiz klasetik kanpo egingen diren lan guztiak hartuko dira kontuan ebaluatzeko garaian. Azken emaitzak ondorengo atal hauen arabera proportzio honetan emanen dira:

- Lanak eta Jarrera (materiala ekarri, ez oztopatu, parte hartu eta euskara erabili) %15
- Proiektuak eta azterketak %85

Ikasturte osoko emaitzak proportzio ezberdinetan banatuko dira, hiruhileko bakoitzean landuko den proiektuaren zailtasunaren arabera. 4. DBHn lehen ebaluazioak %30eko balioa izanen du eta gainerakoek, aldiz, %35ekoa.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Proiektuak eta lanak zuzentzeko irizpideak hurrengo hauek ditugu: proiektuaren berezitasuna, koherentzia, kohesioa, aurkezpena, aberastasuna, informazioaren tratamendua, euskara maila eta originaltasuna.

Proiektuak eta lanak epe kanpo ematen badira, gehienezko nota 5 izanen da.

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ikasleak ebaluazioa gaindituko ez balu, berreskurapen azterketa egingo luke horretarako aurreikusten diren egunetan.

Hiru ebaluazioen ehunekoak aplikatu ondoren, 5 baino gutxiago aterako duenak nahikotasuna egin beharko du. Proba horretan 5ekoa lortuz gero, kurtsoa gainditutzat joko dugu. Etengabeko ebaluazioa galduz gero ere, ikasleek nahikotasun proba egingen dute, legeak arautzen dituen estandarren arabera prestatuko dena.

Ohiko deialdian gainditu ezean, ekainaren erdialdean ezohiko azterketa egingo dute. Estandarren arabera prestatuko da eta notaren %100a izanen da.

Aurreko ikasturteko Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia gainditu gabe izanez gero, irailean beste proba idatzi bat egiteko aukera izanen dute. Horrela gainditu ezean, laugarren mailako lehenbiziko eta bigarren ebaluazioetan gutxienez 4koa lortu beharko da gainditutzat emateko. Hala ez balitz, apirilean beste proba idatzia gainditu beharko da. Berreskurapen nahiz nahikotasuneko azterketetan gehienez ere 5ekoa lortu ahal izango da.

KANPOKO EBALUAZIOA: FROGA DIAGNOSTIKOA

Ikasturte honetan PISA proba egin lezaket; beraz, honekin erlasionaturiko alderdiak landuko dira:

HELBURUAK

JARDUERAK

<p>Proiektuetan ulermena zein testuaren alderdi formalak egoki lantzea. Testuen hainbat alderdiren analisi sistematikoa egitea. Inferentziak egitea, ondorioak ateratzea eta asmoa identifikatzea.</p>	<p>Inferentziak egin, ondorioak atera, baliabide tipografikoen erabilera aztertu, testu tipoa antzeman, asmoa identifikatu, grafikoak interpretatu, konnotazioa landu, igorlea eta hartzailea identifikatu, antolatzaileak landu, hiztegia aberastu, galde moduak ezagutu, poesiaren alderdi teknikoaren analisia egin (baliabide literarioak, hartzailea, igorlea, egitura...) eta gertakarien ordena kronologikoa interpretatu.</p>
--	---

OHARRA: Ikasturtean zehar irizpide pedagogikoen arabera zerbait alda liteke beharrezko balitz.